

**EKINTZAILETASUNA UNIBERTSITATEAZ KANPOKO
HEZKUNTZA-ESPARRUAN SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN
EBALUAZIOA**

1.- SARRERA

IKASLAN, Europar Batasunarekin bat etorrita, eta beste zenbait erakunderekin (oraingo honetan nagusiki Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Departamentuarekin) koordinatuta eta haiek finantzatuta, lan egiten ari da azken hamarkadan bizi osoan etengabe ikasteko funtsezkoak diren gaitasunen esparruan. Bereziki, gaitasun hauek kontuan hartuta:

- gaitasun digitala,
- ikasten ikastekoa,
- gaitasun sozial eta emozionalak, eta
- ekintzailetasuna

Azken esparru horretan, zenbait programa garatu dira, material didaktikoa prestatu da, eta ekimenak abiarazi dira lankidetzan arituta hezkuntza-komunitatearekin (Kosmodisea; Hasi eta Hazi eta abar) eta Europako Gizarte Funtzak batera finantzatuta (%50 batera finantzatuta: “EGIFek zure etorkizunean inbertitzen du”).

IKASLANek, bide hori eginda duela, eta hezkuntza- nahiz gizarte-aldaketa biziko zortzi urteren ondoren, orain arteko ahalegin guztien balantzea egitea pentsatu du, etorkizunari begiratzeko, eta beste lan-ziklo bat abiarazteko, ikasitako guztiarekin eta esparru horietan izandako bilakaera orokorrarekin era koherentean jokatuta.

Horiek horrela, IKASLANek baldintza teknikoen agiri hau aurkezten du, unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-esparruan ekintzailetasun-gaitasuna sustatzeko estrategiaren ebaluazioa kontratatzeko, Kosmodisea ekimenari funtsezko protagonismoa emanez:

- Kosmodisea ekimenak ekintzailetasun-gaitasunaren garapenean eta gaitasun sozial eta emozionalen esparruko lanean zer ekarpen egin duen zehaztea.
- eta, ondorioz, ikastea esparru honetako etorkizuneko esku-hartzeak optimizatzeko.

Ondoren, zerbitzu honek zer xede duen eta zerbitzua erabakitako epean emateko zer baldintza bete behar diren zehazten da.

2.- XEDEA

Baldintza teknikoen agiri honen xedea da unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-esparruan ekintzailetasun-gaitasuna sustatzeko estrategiaren ebaluazioa kontratatzea, Kosmodisea ekimenari funtsezko protagonismoa emanez.

Informazio zehatz eta sakona emango da Kosmodisearen urteroko ekitaldien garapenari buruz (ezaugarriak, parte-hartzaileak eta emaitzak), bai eta haien inguruan izandako beste ekimen batzuei buruz ere. Ebaluazioak helburu espezifiko edo esperotako emaitza hauek bermatu beharko ditu:

1. Lortutako emaitzen argazkia izatea eta ekimenok abian jartzean izandako arrazoiak edo helburuak zer neurritan lortu diren zehaztea.
2. Lorpenak eta haiek erdiesteko baliabideak alderatzea; eta irizpideak ematea egindako ahaleginak neurtzeko eta horretatik ikasteko.
3. Horrelako ekimenak (Kosmodisea, batez ere) planteatzearen baliagarritasuna neurtzea etorkizunari begira: zer neurritan dauden indarrean haiek abiaraztearen oinarrian egondako beharrak eta arrazoiak.
4. Irizpideak ematea hura perfekzionatzeko eta/edo, hala egokituz gero, berrorientatzeko, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren esparruan funtsezkoak diren beste gaitasun batzuk (ikasten ikastekoa, sozialak eta emozionalak eta abar)

sustatzeko beste zenbait ekimeni lotzeari begira, Gipuzkoako jardueren bilakaeraren ildotik.

Eduki-esparru horien inguruan sortutako informazioak ebaluazio-txosten batean formalizatuko dira, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Departamentuak partekatu eta baliozkotu egingo du txosten hori haren fase edo azpiproduktu guztietan.

Hona hemen datu batzuk, orain arte garatutako esku-hartzeen norainokoa zehazten laguntzeko: denbora honetan, Kosmodisearen ekitaldi bakoitzean, batez beste 35 ikastetxe eta 1.300 ikasle aritu dira urtero; haiek, gutxi gorabehera, 150 taldetan antolatuta egon dira; 70 bat irakaslek izan dute talde horien ardura. Haietan izandako parte-hartzea bereizia izan da hezkuntza-mailen edo sistemen arabera: lehen hezkuntzako lehen zikloa; lehen hezkuntzako bigarren zikloa; derrigorrezko bigarren irakaskuntza; batxilergoa; eta prestakuntza-zikloak.

Informazio gehiago: <http://www.kosmodisea.net>

3.- ESKAINTZA AURKEZTEKO ESKAKIZUNAK

Eskaintzek, gutxienez, hauek zehaztu beharko dituzte beren garapenerako:

- Espero diren emaitzak lortzeko egokitzat jotzen den planteamendu metodologikoa: proposatutako ikuspegia, ebaluazio-irizpideak eta haiei lotutako oinarrizko adierazleak.

- Hura gauzatzeko lan-plana: lantaldea, esperientzia antzeko lanetan, plangintza gauzatzeko proposatutako esku-hartzeen deskribapena eta haren fasekako antolaketa.
- Garapenerako zehaztutako epea/lan-egutegia: esku-hartze horien eta lotutako ondoriozko produktuaren/produktuen denborazko antolaketa.

4.- ZEHARKAKO ESKAKIZUNAK

Proiektua finantzatzeko diru-laguntzetarako deialdiko oinarrien arabera:

- Genero-ikuspuntua barne hartu behar du.
- Ikastetxeekiko harremanetan, ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-mapa kontuan hartu beharko da.
- Azken txostenak euskaraz eta gaztelaniaz egon beharko du.

5.- GAUZATZEKO EPEA

Finantzaketaren xede den proiektuak 2013ko azaroaren 30a baino lehen bukatu beharko da.

6.- BALDINTZA EKONOMIKOAK

Gauzatu beharreko kontratuaren zenbatekoa, guztira, hau da: 46.250 euro (BEZa kanpo).
Ordainketa honela egingo da:

- %50 lana esleitutakoan; eta
- gainerako %50a lana eman eta kontratua amaitutakoan.

7.- JABETZA

Lana Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Departamentuak finantzatuta egingo da, eta haren araudi erregulatzailerako 18. oinarrian gaiari buruz jasotakoa aplikatuko zaio (Gipuzkoa ikasten duen lurralde bezala sustatzeko programa da aipatu araudia, Diputatuen Kontseiluak 2012ko ekainaren 14an onartua eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2012ko ekainaren 19an, 116. zenbakian).

8.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Eskaintza ekonomikoa		80
Esperientzia antzeko lanetan		5
Lan egingo duen taldea		5
Kalitatea eta hobekuntza- proposamenak		10

9.- AURKEZTEKO EPEA

Proposamenak IKASLANen bulegoetan aurkeztuko dira: Etarte bidea 9 (Zubieta auzoa), .
20170 Usurbil.

Eskaintzak aurkezteko epea 2013ko uztailaren 22ko eguerdiko 12.00etan amaituko da.